

“PROPOSAMENAK EGITEN ETA ADOSTASUNETARA HELTZeko BIDEAK BILATZEN JARRAITUKO DUGU”

- **Udal gobernuak gehiengo nahikoa du bere aurrekontuak aurrera ateratzeko eta bere esku dago, beraz, EAJren proposamenak aintzat hartzea edo ez, “baina guk ere oñatiarren zati handi bat ordezkatzeko dugu eta uste dugu gure betebeharra dela proposamenak egitea”.**
- **“Proposamenak egiten eta horien inguruan berri ematen jarraituko dugu, udal gobernuak proposamen itxiak eta bozketa bidez erabakitzeko modukoak nahi baditu, gure herriaren aniztasuna eta elkarlanerako bidea ukatzen ditu eta hori ez da, gure ustez, bide zuzena”.**

Legealdi berri bateko lehen urtean gaude eta Oñatiko EAJk adierazi duenez, aurrekontuen lanketan honek aldaketa bat suposatu du. Jeltzalek azaldu dutenez, “gure udal taldeak azken urteetan egin duen moduan, oñatiarrentzako aurrekontu hobe batzuk lantzeko helburuarekin hainbat proposamen aurkeztu ditu udal gobernuarekin adostasun batetara heltzeko asmoz”. “Beti aurkeztu izan ditugu proposamen modura, aurrekontu proiektuan faltan botatzen ditugunak, ez zuzenean bozkatzeko emendakin modura, udal gobernuarekin lantzeko proposamen modura baizik, gure asmoa beti delako adostasunetara heltzea”. Udal gobernuak gehiengo nahikoa du bere aurrekontuak aurrera ateratzeko eta bere esku dago, EAJren proposamenak aintzat hartzea edo ez, “baina guk ere oñatiarren zati handi bat ordezkatzeko dugu eta uste dugu gure betebeharra dela proposamenak egitea” azaldu dute jeltzaleek.

EAJk azaldu duenez, proposamenak betiko moduan egin dituzte, ez aurrekontua desorekatzeko helburuarekin, adosteko helburuarekin baizik, udal gobernuarentzat interesgarriak izan daitezkeenak txertatzeko eta horretarako beste partida batzuk kendu beharra dagoela argi dute jeltzaleek, “baina orain arteko lanketan hori udal gobernuaren esku utzi izan dugu, akordioetara iristea errazten duela uste dugulako”. Hori horrela ez ulertzea edo ulertu nahi ez izatea, akordioetara iristeko borondate falta bezala ikusten dute jeltzaleek. Azaldu dute, halaber, beti egin izan dituztela era desberdinetako proposamenak, partidak dituztenak gehienak, baina partidarik gabekoak ere, izan ere, aurrekontuen lanketan hurrengo urterako asmoak mahai gainean jartzen dira eta jeltzaleen iritziz garrantzitsua da mahai gainean jartzea baita, printzipioz, partidarik gabe aurrera eraman litezkeen proposamenak. Batetik, aurrekontuetan jasotako beste proposamenekin bateragarriak edo osagarriak izan daitezkeela ziurtatzeko eta bestetik, proposamen batzuek partidarik behar duten ala ez beti argi ez dagoelako. EAJk dioenez “hori begi bistan geratu da aurtengo aurrekontuen lanketan, izan ere, guk partidekin jasotako hainbat proiektu udal gobernuak partidarik gabe egin litezkeela uste baitu”. Laburbilduz, jeltzaleen proposamenak negoziaketarako lehen pauso bat izan ziren, aurreko urteetan egin izan duten modura eta borondate hori argi uzten du bigarren proposamen doitu bat aurkeztu izanak. “Beti egon gara hitz egiteko eta adosteko prest, hori da gure lana, oposizio eraikitzaile bat egitea, baina kudeaketarako ardura eta baliabideak udal gobernuak ditu eta proposamenak aintzat hartzea borondate politikoa besterik ez da”.

EAJk argi du udal gobernuak ordezkatzeko duela oñatiarren gehiengoa, baina argi du, era berean, EAJk ere oñatiarren zati handi bat ordezkatzeko duela eta udal gobernuak bere lanaren berri ematen duen bezala EAJk ere bere lanaren berri emateko eskubidea ez ezik erantzukizuna ere baduela. “Udal gobernuarentzat horrek arazo bat suposatzen badu argi dago kolore bakarreko Oñati baten ikuspegi baztertzaila duela eta ez duela gure herriaren aniztasuna ulertzen eta onartzen”. “Guk Oñati aintz eta integritate baten aldeko apustua egiten dugu, guztion ikuspegiak barneratuko dituen eta guztion arteko elkarlanaren bidez hobetuko duguna”. Jeltzaleen ustez, udal gobernuak proposamen itxiak eta bozketa bidez erabakitzeko modukoak nahi baditu, herriaren aniztasuna eta elkarlanerako bidea ukatzen ditu eta “hori ez da bide zuzena”. “Guk eraikitzaileak izaten jarraituko dugu, ikuspegi guztiak barneratzen dituen proiektu batean sinesten dugulako” azaldu du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak, “konfrontazioaren bidea ez da gure bidea ez ditugu gure esfortzuak horretara bideratu nahi, oñatiarrek merezi dutelako esfortzu horiek herria hobetzera bideratzea”.

“SEGUIREMOS REALIZANDO PROPUESTAS Y BUSCANDO VÍAS PARA ALCANZAR CONSENSOS”

- **“El equipo de gobierno tiene suficientes votos para sacar adelante sus presupuestos y depende de él aceptar o no nuestras propuestas, pero nosotros representamos a una parte importante de las y los oñatiarras y creemos que es nuestro cometido realizarlas”**
- **“Seguiremos realizando propuestas e informando sobre las mismas, si el equipo de gobierno sólo quiere propuestas cerradas que tan sólo se sometan a votación, niega la diversidad del municipio y la posibilidad de trabajar juntas y juntos y ese no nos parece el mejor camino”**

Este es el primer año de una nueva legislatura y, según EAJ-PNV, se ha producido un cambio en el modo en el que se venían trabajando los presupuestos. Según afirman los jeltzales “nuestro grupo municipal, como en años anteriores, ha presentado diversas propuestas destinadas a elaborar unos presupuestos mejores para las y los oñatiarras con la intención de llegar a acuerdos sobre los mismos con el equipo de gobierno”. “Siempre hemos presentado nuestras propuestas de esta forma, añadiendo al proyecto partidas que echamos de menos en el mismo, no como enmiendas para ser votadas directamente sino como propuestas a consensuar con el equipo de gobierno, ya que nuestro objetivo es siempre llegar a consensos”. El equipo de gobierno tiene suficientes votos para sacar adelante sus presupuestos y depende de él aceptar o no las propuestas jeltzales “pero nosotros representamos a una parte importante de las y los oñatiarras y creemos que es nuestro cometido realizar propuestas” han explicado los jeltzales

Según ha afirmado EAJ-PNV, han realizado sus propuestas en el mismo formato que otros años, su intención no ha sido desequilibrar los presupuestos, sino llegar a acuerdos en aquellas partidas que el equipo de gobierno creyera interesantes y son conscientes de que para introducir dichas partidas sería necesario eliminar otras “pero hasta este año habíamos trabajado así, dejando en manos del equipo de gobierno la decisión de qué partidas sustituir, entendiendo que esto podía facilitar el acuerdo”. Los jeltzales ven el hecho de no entender esto así o no querer entenderlo, como una falta de voluntad para llegar a acuerdos. Han explicado, asimismo, que siempre han realizado propuestas de diversa índole, la mayoría con partida presupuestaria asignada, pero también algunas sin partida, ya que entienden que el debate presupuestario es el momento de poner sobre la mesa las propuestas para el próximo año, incluso a las que se podría no asignar ninguna partida, por un lado, para ver si son compatibles y o complementarias con otras partidas que se vayan a aprobar y, por otro, porque no siempre está claro y se requerirá partida presupuestaria para algunos proyectos. Según EAJ-PNV “esto último ha quedado claro en este debate presupuestario, ya que algunos proyectos a los que habíamos asignado partida presupuestaria, según el equipo de gobierno se podrán hacer si ella”. En resumen, las propuestas de EAJ-PNV, como en anteriores años, eran un primer paso para la negociación, como deja patente la segunda propuesta más ajustada que presentaron los jeltzales para poder llegar a consensos. “Siempre hemos estado dispuestos a hablar y a acordar, esa es nuestra labor, realizar una oposición constructiva, pero las responsabilidades y los recursos de gestión son del equipo de gobierno y aceptar o no las propuestas es cuestión de voluntad política”.

EAJ-PNV tiene claro que el equipo de gobierno representa a una mayoría de oñatiarras, pero tiene igualmente claro que EAJ-PNV también representa a una parte importante de las y los oñatiarras y, al igual que el equipo de gobierno informa sobre la labor que lleva a cabo, los jeltzales tienen no sólo el derecho sino el deber, de informar a la ciudadanía sobre su labor. “Si esto supone un problema para el equipo de gobierno, está claro que tiene una perspectiva monocolor y excluyente de Oñati, que no entiende o no acepta la diversidad de nuestro municipio”. “Nosotros apostamos por un Oñati diverso e integrador que recoja todos los puntos de vista, un municipio que mejoremos entre todas y todos”. En opinión de los jeltzales, “si el equipo de gobierno sólo quiere propuestas cerradas que tan sólo se sometan a votación, niega la diversidad del municipio y la posibilidad de trabajar juntas y juntos y ese no

nos parece el mejor camino”. “Nosotros seguiremos siendo constructivos, ya que creemos en un proyecto que integre todos los puntos de vista” ha explicado la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos, “el camino de la confrontación no es nuestro camino, no queremos dirigir nuestros esfuerzos a ello, ya que las y los oñatiarras merecen que dirijamos todos nuestros esfuerzos a mejorar Oñati”.